

**Egilea:** Izar Igarzabal Goenaga

## **EMAKUMEAK: IZAKI ASKEAK**

Zer da protagonista izatea? Bada, hitz gutxitan esanda, istorio baten pertsonaia nagusi edo garrantzitsua izatea da. Bakoitza bere historiaren protagonista da, baina, zenbat protagonista ezagutzen ditugu? Historian zehar ere, hainbat protagonista ikusi ditugu. Ezagunenak, Kristobal Kolon, Alejandro Magno, Albert Einstein ... Denak gizonezkoak. Horrek zer pentsatua ematen du. Non egon dira urte guzti hauetan emakumeak? Emakumeak urte guzti hauetan isilik egon dira, preso, pentsatzen zutena esateko eskubiderik gabe, eginiko ahaleginak aintzat hartu gabe. Adibidez, Irena Sendlerrek 2.500 ume baino gehiago salbatu zituen Varsoviako ghetotik, baina inork ez zuen onartu bere ekintzaren garrantzia eta haren zahartzaroraino ez zuen aitortzarik jaso. Henrietta Faber suitzarra gizonez mozorrotu behar izan zen medikuntza ikasteko eta praktikatzeko.

Emakumea amaitu gabeko izakitzat hartu du historiak, zaindu eta babestu egin behar den izaki bat, senarraren azpitik eta senarraren aginduetara egon behar duen izaki bat.

Historian zehar emakumeak etxeko lanak soilik egiten irudikatu izan ditugu: kozinatzen, umeak zaintzen, etxea garbitzen... Gerra garaian, gizonezkoak borrokatzen zeuden bitartean, emakumeak izan ziren gizonen lanak eginez herrialdeen ekonomia indartu zutenak.

Aro Modernoan ere, oraindik gizonezkoak soilik dira historiaren protagonista nagusi bakarrak, Isaac Newton, Galileo Galilei... Oraindik ere emakumezkoak ez.

Gaur egun, emakumeen eskubideengatik asko borrokatu ondoren, badirudi gauzak asko aldatu direla, baina, oraindik lan asko dago egiteko. Espainian, batez beste zortzi bortxaketa salatzen dira eguneko. Beldurgarria. 2022an 17.389 eraso sexista salatu ziren. Zifra oso larriak dira, kezagarriak. Gutaz beste, gure gurasoak ere beldurrez bizi dira, barra-barra entzun behar izaten ditugu honelako esaldiak: “ez bueltatu etxera bakarrik” edota “ez jantzi horrelako arroparik”. Benetan horrela bizi nahi dugula? Nik ez. Nik aske bizi nahi dut.